



ARAUDIA

TXIRRINDULARITZA BTT-XCO 2022

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu Arratzua Ubarrundian, Arroiaben, (Araba), 2022ko ekainaren 4ean. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK infantilentzat antolatzen dira (2008 edo 2009 urtean jaioetako ikasleentzat). Gehienez kategoriako (neska eta mutiletan) 25 ikaslek parte hartuko dute lurralde historiko bakoitzeko.

2. IZEN EMATEA

EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOETAN parte hartzeko izen ematea, Foru Aldundi bakoitzaren bitartez egin behar da, maiatzak 31kako 15:00ak baino lehenago.

Lurraldeetako Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaritzara igorritako zerrendetan azaltzen ez diren txirrindulariak parte hartzeko aukerarik ez dute izango.

Lurraldeetako ordezkariak izen emateak baieztatu beharko dituzte egun berean.

3.DORSALAK JASOTZEA

Dorsalak Arroiabeko erdigunean jasoko dira. Bolatokian.

4. PARTE HARTZEKO ARAUAK

- Txirrindulariek erabiliko duten bizikletak Bizikleta Kirolaren Araudian ezarritakoaren arabera jokatu du, eta disko-balaztak erabiltzeko baimena izango du.
- Parte hartzen duten txirrindulariek eskolak ematen dizkien jantziak erabili beharko dituzte.
- Parte hartzaileek nahitaez erabili behar dute kasko zurruna.



- Txirrindularien iragazgaitzak gardenak izan behar dira, dortsalak ikusteko moduan.
- Negurako arropa erabilia; dortsalak ikusteko moduan eraman behar dira.

Bere burua defendatzera beharturik dago lasterkari bakoitza; kirol-lehiaketa guztiei dagokien joko garbiaren aurka doan lasterkarien arteko edozein laguntza edo akordio debekaturik dago.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako bizkarreko zenbakiak eramango dituzte lasterkariak. Bizkarreko zenbaki horiek ezin dira ez ebaki, ez txikiagotu, eta lasterkariak bizkarraren ezkerrean jarrita eramango dituzte, mokorraren parean.

5. ZIRKUITU LABURREKO PROBA (XCO)

Arau orokor gisa, parte-hartzaileek egin beharreko lehiaketek 30-45 minutu iraunen dute, gutxi gorabehera.

Probak zirkuitu erabat itxi batean egingen dira. Zirkuituko sokak 5 km-ko luzera izan beharko du gutxienez. eta gehienez ere 8 km, ahalegin fisikoaren aurretik trebetasun teknikoak lehenesten dituen trazadura batekin.

Sailkapenaren ordena parte-hartzaile bakoitzaren helmugako lerrotik pasatzeko hurrenkeraren arabera ezarriko da.

Proba bukatutzat joko da META gainditzen duten parte-hartzaile guztientzat, irabazleak helmugara iritsi ondoren.

Doblatutako txirrindulariak proba utzi beharko du.

Erretiratzen diren txirrindulariek beren dortsalak epaimahai teknikoari eman beharko dizkiote.

5.1. Irteerako planilla

Irteerako parrillak 9 kale izanen ditu, 75 cm-koak. bakoitzaren zabalera.

Epaimahai teknikoak zozketaren bidez banatuko ditu kaleak lurralde federazioen artean, federazio bakoitzeko hiru.

Lurralde federazio bakoitzak erabakiko du bere txirrindularien ordena esleitutako kale bakoitzeko lerroan, eta epaimahai teknikoari jakinaraziko dio.



Lurralde Federazio bakoitzeko txirrindulariek banan banan deituko dituzte Epaimahai Teknikoak, bakoitzari dagokion ordenaren eta posizioaren arabera.

5.2. Laguntza teknikorako postuak

Laguntza teknikoak horretarako prestatutako eremuetan baizik ez dira egingo, eta horretarako baimendutako pertsonak bakarrik. Espresuki debekaturik dago txirrindularien artean material trukaketa edo laguntza oro.

7. KONTUAN IZATEKOAK.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren ustez partaideen segurtasuna bermatuta ez badago, froga bertan behera usteko gaitasuna izango du.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkerro nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

8. AZKEN OHARRA

Araudi horren barruan aurreikusirik ez dauden egoeretarako honako hauek izango dira kontutan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Txirrindularitzako Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.